# BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA / PARTAIDEAREN ORRIA / ERREKLAMAZIOAK

Langileak Kudeatzeko Zuzendariak, 2023ko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez, **behin-behinekoz** ebatzi du, 2023-2024 ikasturte-hasierako esleipen-prozesua, **salbuespenezko egonkortze-prozesuan hautatutako irakasleei** dagokienez.

**Esleitutako lanpostuen eta pertsonen zerrendak** ondoko lekuetan daude ikusgai: **Hezigunean**, eta Hezkuntza Sailaren **web-orrian**.

## IRAKASLEGUNEAN DAGOEN APLIKAZIORA SARTZEKO

**Jo** https://hezigunea.hezkuntza.ejiedes.net/eu/inicio **helbide elektronikora**.

Zure erabiltzailea eta pasahitza sartu eta gero, sakatu "Sarrera sinadura"




Aukeratu "Eremu pertsonala" / "Izapideak langileen sailarekin" / "Ikasturte hasierako esleipena".
Prozeduraren beraren pantailara zuzenean sartuko zara.

## PARTAIDEAREN ORRIA

Esleipena ebatzi ondoren eta parte-hartzaile guztien eskaerak egiaztatu eta gero, eskabidearen laburpena lortu ahal izango duzu, "PARTAIDEAREN ORRIA" lotura erabilita. Aukera hori eskaera-epean eskaeraren bat sartu zuten pertsonek soilik izango dute.




Bertan, **parte hartzeko baldintza errealak** jasotzen dira, hots, zer eskaera eta aukera onartu diren eta zeintzuk baliogabetu diren. Eskaera bakoitzaren egoera lerro bakoitzaren amaieran dagoen zutabean agertzen da.

**Baliogabetutako eskaeretan E marka** azaltzen da. Akats moduan azalduko dira zure eskaerak, baldin eta horietan klaseak emateko baldintzak betetzen ez badituzu edo beste edozein arrazoi dela-eta inkoherenteak badira edo sistemak onartu ezin baditu.



## ESLEIPEN-EMAITZA ZELAN IKUSI

Esleipen-emaitza ikusi ahal izango duzu, lotura hauek sakatuta:

"ESLEIPEN-ZERRENDA OROKORRA": esleitutako lanpostuen eta pertsonen zerrenda osoa ikusi ahal izango duzu.

"NORBERARI ESLEITU ZAION LANPOSTUA IKUSTEKO": sistemak azalduko dizu zein lanpostu esleitu zaizun eta lanpostuaren ezaugarriak:



## BEHIN-BEHINEKO EBAZPENAREN KONTAKO ERREKLAMAZIOAK AURKEZTEA

Azkenik, behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazio bat ere aurkeztu ahal izango du formulario bidez, **2023ko uztailaren 7ko 12:00etatik 2023ko uztailaren 8ko 10:00etara**.

Behin Hezigunean identifikatuta, zure eremu pertsonala ikusiko duzu, eta handik sartu ahal izango zara **erreklamazio-formulariora**:



# BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA 2023. Salbuespenezko egonkortze-prozesuan hautatutako langileak. Erreklamazioak

## ERREKLAMATZAILEAREN DATUAK

NAN

Abizenak eta izena

Emaila *

Lurraldea *

## ERREKLAMATUTAKO PLAZAREN TIPOLOGIA

Erreklamatutako plaza (plaza bat baino gehiago erreklamatu nahi baduzu, adierazi oharretan) *

Espezialitatea *

Ikastetxea *

Meritu-lehiaketaren puntuazioa *

## ERREKLAMAZIOA

Erreklamazioa egiteko arrazoia *

Parte hartzeko orria (egiaztagiria) Seleccionar archivo Ninguno archivo selec.

## DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OINARRIZKOA

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Langileak kudeatzea.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da, interesduna alderdi duen kontratu bat betearazteko; tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean; 2-1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa; 5-2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak: Estatuko Administrazioko beste organo batzuk, Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Bidali